

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2018ko URTARRILAREN 25ean
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bostean, hemezortziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea Gentza Alamillo Udaeta jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Lauren Uria
Iratxe Parro

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongi etorria eman die eta gehiagorik gabe Ohiko Bilkurako gai zerrendan dauden puntuen eztabaida eta bozkatzera pasa dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko abenduaren 20an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Nerea andreak (BILDU) adierazi du jasota geratzea nahi duela Arespalditza Kili Kili elkarteari ludoteka lagatzea ebazten zuen dekretua eskura izatea eskatu zuenean. Lokala lagatzeko baldintzak zeintzuk izan ziren jakin nahi ditu.

Gaiari buruzko beste ezer esan gabe, akta aho batez onetsi da.

3.- 1/2018 zorrak judizioz kanpo aintzatestea.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 10 (5 EAJ-PNV, 3 BILDU, 2 AB)

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Judizioz kanpo kredituak aitortzeko 1/18 espedientea.

IKUSI DA.- Idazkari-kontu hartzaileak 2018ko urtarrilaren 11n eginiko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2018ko urtarrilaren 16an eginiko aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Ogasunen Lege Arautzailearen Testu Bategineko 176. artikulua eta 500/1990 Errege Dekretuko 16. artikulua (Toki Ogasunak arautzen dituen).

Udalbatza osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea 1/2018 kredituak judizioz kanpo aitortzeko espedientea. Gastuak honako hauek dira:

- 4092 faktura, EXPERT IZASKUN enpresarena (IFK: B01040054), 2015eko abenduaren 18koa. Kontzeptua: "Suministro de Micro Cadena Samsung.". Zenbatekoa: 149 euro, BEZ barne.

Bigarrena.- Aipatutako kredituen aitortza 2018 ekitaldiko luzatutako aurrekontuari egoztea, 330.226.013 zenbakiko aurrekontu-aplikazioari ("Gabonetako opariak"), hain zuzen.

3.- Farmazialariarekin etorkizunean Luiaondoko botikina alokatzeko kontratuaren baldintzak zehazteko akordioa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du gobernu taldeak proposamen bat egin zuela batzordean alokairuaren etorkizuneko kontratuari buruz. Hau da berak proposatu zuena: iraupena 20 urtekoa izatea, alokairua 50 euro hilero, eta ohiko hornidura, garbiketa eta bestelako gastuak errentariaren kargura izatea. Gehitu du farmazialariaren asmoa dela langabezian dagoen pertsona bat kontratatzea botikina goiz eta arratsalde irekita egoteko.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du farmazialariarekin hitz egin dutela eta lokal publiko batean egingo den ekimen pribatu bat izan arren, bere taldeak gobernu taldearen proposamena onartuko du. Izan ere, farmazialariak esan du langabezian dagoen pertsona bat kontratatuko duela Luiaondoko botikinerako. Dena den, hausnarketa bat egin dut. Izan ere, botikina diru publikoarekin egin da eta ekimena pribatua. Adibidez, foro sozio-sanitarioko ekimenetan nolabait laguntzea eskatu diezaiokegu.

Susana andrea (EAJ-PNV)

Gentza jaunak esan du orain irizpide hauek onartuko direla, baina berriz Udalbatzara ekarriko dela alokairu kontratua, Eusko Jaurlaritzako Farmazia Sailak botikina instalatzeko baimena ematen duenean.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 10 (5 EAJ-PNV, 3 BILDU, 2 AB)

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2017ko urriaren 19an udalbatza osoak hartutako erabakiaren bitartez, Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion Luiaondoko 3. poligonoko 1333 lursailean farmazia-botikin bat instalatzeko baimena, obrak jada amaituta daudelako.

IKUSI DA.- Eusko Jaurlaritzako Farmazia Saila espedientea izapidetzen ari dela eta Udaleko idazkariarekin harremanetan jarri dela, Udalak botikina kudeatzeaz arduratuko den farmazialariarekin (udalerrian dagoen bakarra) sinatu nahi duen alokairu kontratuari buruzko baldintzei buruzko informazio gehiago eskatzeko.

Udalbatza Osoak, gehiengo batez, **HONAKO HAU ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzako Farmazia Sailari jakinaraztea Udal honek Luiaondoko botikina alokatzeko kontratuan zehaztuko dituen baldintzak. Honako hauek izango dira:

- Kontratuaren iraupena: 20 urte.

- Errenta: 60 €/hilabete. Eta aurreko urtea ixtean dagoen KPIren arabera igoko da (positiboa izango balitz).

- Argia, ura, edo bestelako hornidura gastuak errentariaren (farmazialaria) kargura izango dira. Bai eta garbiketa gastuak eta altzariak aldatzea, edo eraikina mantendu eta kontserbatzea ez den edozein gastu ere; azken horiek errentatzailearen kargura izango dira.

4.- Onestea, bidezkoa bada, zaborra biltzeko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du gai hori zegokion informazio batzordean azaldu zela. Esan zen bezala, prezioaren bi faktoreak dira zerbitzua emateagatiko gastuak eta isurpen-tasa. Eta guztiok dakizue, gehitu du, Europako zuzentzaileei jarraikiz, zerbitzuaren kostu osoa tasen bidez berreskuratu behar dela. Igoera berriekin, berriz ere, gastuaren eta tasen diru-sarreraren artean defizita sortu da.

Josu jaunak (BILDU) esan du abstenitu egingo direla; izan ere, Kuadrillako udalerririk desberdinetan hainbat iritzi daude. Jundizen ordaintzen diren tasei buruzko mozio bat aurkeztu zen, baina, azkenean, EAJ taldeak aurkeztu zuen mozioa onetsi zen. Izan ere, tasa horiek poliki-poliki igortzea proposatzen zuen. Eta Jundizeko fabrika probintziako diruarekin egin zen eta probintzia guztian zehar zerbitzua emateko helburua zuen. Halaber, gehitu du zerbitzu horri buruzko hausnarketa egin behar dela eta eredu berriz pentsatu. Izan ere, eredu horrekin ordaindu eta zaborra erre besterik ez da egiten. Horregatik guztiagatik, bere taldea abstenitu egingo da.

Gentza jaunak adierazi du Aiara bezalako udalerririk proposatzen ari direla aztertzea konpost-egiteak edo bosgarren edukiontzia bezalako ereduetan zein intzidentzia izan dezakeen. Halaber, kontzientziatzeko lan asko egin behar da errefusa murrizteko.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du Kuadrillako azken Ingurumen Batzordean eztabaidatu zirela kudeatzeko eredu desberdinak, eta guk proposatu genuen horri buruz hausnarketa bat egitea. Kuadrillako presidentek konpromisoa hartu zuen apirilean edo maiatzean zaborrak kudeatzeko eredu berrikusiko duen azterketa bat abiarazteko.

Inork ez du beste ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da, eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ-PNV, 2 (AB)

Abstentzioak: 3 BILDU

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Korporazioak ikusi du beharrezkoa dela aldatzea Zaborren Zerbitzu Publikoa emateagatiko Tasa arautzen duen Ordenantza.

IKUSI DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumen Informazio Batzordeak 2018ko urtarrilaren 16an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Hasiara batean onestea Zaborren zerbitzu publikoa emateagatiko tasa arautzen duen ordenantzaren aldaketa hauek:

I. ERANSKINA aldatu da, eta honela gelditu da:

TARIFA

1. epigrafea: Etxebizitzak

	2018	2019	2020
Luiaondon eta Arespalditzan batzeagatik.	60,63 €/urte.	75,84 €/urte.	84,27 €/urte.
Udalerriko gainerako lekuetan batzeagatik.	48,51 €/urte.	60,67 €/urte.	67,42 €/urte.

2. epigrafea: beste erabilera batzuk dituzten saltokiak eta lokalak

	2018	2019	2020
Batzeagatik.	297,13 €/urte.	371,66 €/urte.	412,95 €/urte.

3. epigrafea: Enpresak.

	2018	2019	2020
Gehienez ere okupatutako azaleraren 1.000 m2.	354,71 €/urte	443,68 €/urte	492,98 €/urte
1.000 m2-tik gorako azalera okupatua	565,61 €/urte	707,49 €/urte	786,10 €/urte

DIRU-BILKETAREN ALDIA:

- Urteko azken hiruhilekoa.

II. ERANSKINA aldatu da; honela geratu da:

2021etik aurrera, eta urtero, I. eranskinean jasotako tarifak eguneratuko dira. Horretarako, gutxienez KPIren eguneraketarekin bat datorren ikuskapena egingo da, zerbitzuak hala eskatzen duenean gerora tarifetan egon daitezkeen aldaketetan eragin gabe.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai egoteko 30 egun baliouduneko epea irekitzea, ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak. Hasiera bateko onespenerari alegaziorik aurkezten ez bazaio, hasiera batean onetsitakoa behin betikotzat joko da, eta testu osoa argitaratuko da ALHAOn.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean.

5.- Alkatetza dekretu hauen berri ematea:

- **Erref.: 568/17.-IFR.-** Obrak abiarazteko baimena ematea, Arespalditzako 3. poligonoko 225 lursailean zaldi-hazkuntzarako erabiltzen den abeltzaintza nabea handitzeko.

- **Erref.: 569/17. AUZ.-** Izoriako lursail batean dagoen abeltzaintzarako eta nekazaritzarako etxola antolamendutik kanpo aitortzen duen espedientea ebaztea.
- **Erref.: 570/17.-** 2017 ekitaldiko ekonomia-jardueren gaineko zergaren zergadun-errola onestea.
- **Erref.: 571/17. FA.-** Erreklamazioa balioestea eta 2017ko Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren likidazioak baliogabetzea.
- **Erref.: 572/17. FCB.-** Aparkatzeko txartela ematea.
- **Erref.: 573/17.-** Zinegotzi baten botoa beste zinegotzi baten esku uztea.
- **Erref.: 574/17.- Alkatearen 10-2017 kreditu gehigarriaren espedientea.**
- **Erref.: 575/17.- APC.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 576/17.- PMIC.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 577/17.- CYR.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 578/17. AOM.-** 2016ko ibilgailuen gaineko udal-zergaren ordainagiriaren zenbatekoa itzultzea, ordainketarik ez zegokiolako.
- **Erref.: 579/17. MPOO.-** Ibilgailuen gaineko udal-zergaren zenbatekoa itzultzea, bajaran emateagatik.
- **Erref.: 580/17.-** Onestea F/2017/16 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.: 581/17.-** Onestea Luiaondoko 1333 lursail katastralean “erabilera publikoko jarduketak” egiteko obraren hirugarren ziurtagiria-azken likidazioa.
- **Erref.: 582/17.-Promociones y Pavimentaciones Balgorza, SA-** “Luiaondoko Padura kaleko mugikortasuna hobetzeko jarduketak” obraren kontratista hautatzea.
- **Erref.: 583/17. Añesko Administrazio Batza.-** Obrarako udal lizentzia ematea Gorobel mendilerroa doan bidearekin batzen den Añesko bidea konpontzeko.
- **Erref.: 584/17.- y Pavimentaciones Balgorza, SA-** “Luiaondoko Padura kaleko mugikortasuna hobetzeko jarduketak” obraren kontratua esleitzea.
- **Erref.: 585/17.-** Udalerriko Administrazio Batzei diru-laguntzak ematea teknikarien 2017. urteko ordainsariak finantzatzeko.
- **Erref.: 586/17.-** Udalerriko Administrazio Batzei diru-laguntzak ematea teknikarien 2017. urteko ordainsariak finantzatzeko.
- **Erref.: 587/17.- Gestión Integral en Ingeniería Civil IM2, SL.-** “Luiaondoko Padura kaleko hiri-mugikortasuna hobetzeko jarduketak” obraren zuzendaritza zerbitzuaren kontratua esleitzea.
- **Erref.: 588/17. Euskalfondoa.-** 2017ko diru-laguntza zuzena.
- **Erref.: 589/17.-** Onestea Luiaondoko 1333 lursailean egingo diren erabilera publikoko jarduketan II. faseko obraren I. ziurtagiria.
- **Erref.: 590/17.-** Alkatearen 6/2017 kreditu-transferentziari dagokion espedientea.
- **Erref.: 568/17. IFR.-** Obrak abiarazteko baimena ematea, Arespalditzako 3. poligonoko 226 lursailean zaldi-hazkuntzarako erabiltzen den abeltzaintza nabea handitzeko.
- **Erref.: 569/17. AUZ.-** Izoriako lursail batean dagoen abeltzaintzarako eta nekazaritzarako etxola antolamendutik kanpo aitortzen duen espedientea ebaztea.
- **Erref.: 570/17.-** 2017 ekitaldiko ekonomia-jardueren gaineko zergaren zergadun-errola onestea.
- **Erref.: 572/17. FA.-** Erreklamazioa balioestea eta 2017ko Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren likidazioak baliogabetzea.
- **Erref.: 572/17. FCB.-** Aparkatzeko txartela ematea.
- **Erref.: 573/17.-** Zinegotzi baten botoa beste zinegotzi baten esku uztea.
- **Erref.: 574/17.- Alkatearen 10-2017 kreditu gehigarriaren espedientea.**

- **Erref.: 575/17. APC.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 576/17. PMIC.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 577/17. CYR.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 578/17. AOM.-** 2016ko ibilgailuen gaineko udal-zergaren ordainagiriaren zenbatekoa itzultzea, ordainketarik ez zegokiolako.
- **Erref.: 579/17. MPOO.-** Ibilgailuen gaineko udal-zergaren zenbatekoa itzultzea, bajaran emateagatik.
- **Erref.: 580/17.- Onestea F/2017/16 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.: 581/17.- Onestea Luiaondoko 1333 lursail katastralean “erabilera publikoko jarduketak” egiteko obraren hirugarren ziurtagiria-azken likidazioa.**
- **Erref.: 582/17.-Promociones y Pavimentaciones Balgorza, SA-** “Luiaondoko Padura kaleko mugikortasuna hobetzeko jarduketak” obraren kontratista hautatzea.
- **Erref.: 583/17. Añesko Administrazio Batza.-** Obrarako udal lizentzia ematea Gorobel mendilerora doan bidearekin batzen den Añesko bidea konpontzeko.
- **Erref.: 584/17.- y Pavimentaciones Balgorza, SA-** “Luiaondoko Padura kaleko mugikortasuna hobetzeko jarduketak” obraren kontratua esleitzea.
- **Erref.: 585/17.-** Udalerriko Administrazio Batzei diru-laguntzak ematea teknikarien 2017. urteko ordainsariak finantzatzeko.
- **Erref.: 586/17.-** Udalerriko Administrazio Batzei diru-laguntzak ematea teknikarien 2017. urteko ordainsariak finantzatzeko.
- **Erref.: 587/17.- Gestión Integral en Ingeniería Civil IM2, SL.-** “Luiaondoko Padura kaleko hiri-mugikortasuna hobetzeko jarduketak” obraren zuzendaritza **zerbitzuaren kontratua esleitzea.**
- **Erref.: 588/17. Euskalfondoa.-** 2017ko diru-laguntza zuzena.
- **Erref.: 589/17.-** Onestea Luiaondoko 1333 lursailean egingo diren erabilera publikoko jarduketan II. faseko obraren I. ziurtagiria.
- **Erref.: 590/17.-** Alkatearen 6/2017 kreditu-transferentziari dagokion espedientea.
- **Erref.: 1/18. LFMG.-** Udal-lizentzia eta obrei ekiteko baimena ematea Luiaondoko eraikin bateko balkoia birgaitzeko.
- **Erref.: 2/18.- 2017ko aurrekontua luzatzea 2018 ekitaldian.**
- **Erref.: 3/18. Madera Zerrabe, SL.-** 548/17 Alkatetza Dekretuaren aurka jarritako berraztertze errekurtsioa ebazten.
- **Erref.: 4/18. APU.-** Obrarako udal-lizentzia ematea eta obrak abiarazteko baimena eman ahal izateko agiri gehiago eskatu dira.
- **Erref.: 5/18. APU.-** Llantenen etxebizitza bat eraikitzeke obratik eratorriko eraikuntza-hondakinen kudeaketa egokia bermatzen duen fidantza eskatu zaio.
- **Erref.: 6/18. NED SUMINISTRO GLP, SAU.-** Tasa likidatzea lurzorua okupatzeagatik 2017ko 4. hiruhilekoan.
- **Erref.: 7/18. Naturgas Energía Distribución, SAU.-** Tasa likidatzea lurzorua okupatzeagatik 2017ko 4. hiruhilekoan.
- **Erref.: 8/18. Orange Espagne, SAU.-** Lehen aldiz erabiltzeko/irekitzeko lizentzia ematea Arespalditzako lursail batean “Telefono mugikorreko deien banagune” jarduerarako.
- **Erref.: 9/18. Pilbacken, SL.-** Obrarako hirigintza lizentzia atzera egindakotzat jotzea, ezarritako epean zegozkion agiriak aurkeztu ez dituelako.
- **Erref.: 10/18. Zorroza Gestión, SL.-** Zehapen-espedientea ebazten, ingurumen arloan egindako arau-hauste baten arduradun gisa.
- **Erref.: 11/18.-** Administrazioen barne sustapenerako frogan oinarriak eta deialdia onesten dituen Dekretua.

- **Erref.: 12/18. DPE.-** Berrezartzeko administrazio espedientearen berri ematea, FJBC jaunaren izenean.
- **Erref.: 13/18. Izoriako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea eta agiri gehiago eskatzea "Izoriako (5. poligonoko 207 lursaila) Ripa auzoa 44 helbideko eraikina birgaitzea, 2 babes ofizialeko etxe egiteko" obrak abiarazteko baimena lortzeko.
- **Erref.: 14/18. Izoriako Administrazio Batza.-** Babes ofizialeko bi etxebizitza jartzeko eraikin bat birgaitzeko obratik sortutako hondakinak modu egokian kudeatzea bermatzeko fidantza eskatu zaio.
- **Erref.- 15/18. OSM.-** Hondakinak kudeatzeagatiko fidantza itzultzeari buruzko agiri gehiago eskatu zaizkio.
- **Erref.: 16/18. OSM.-** Izoriako lursail batean "Erabilera pribatuko hiru txakurtegi eraikitze" obra egin osteko lehen aldiz erabiltzeko lizentzia ematea.
- **Erref.: 17/18.-** Aiarako Administrazio Batzei teknikarien 2017ko ordainsarien zati bat finantzatzeko diru-laguntzei buruzko Dekretuaren I. eranskina aldatzea.
- **Erref.- 18/18. EDP Comercializadora de último recurso, SA.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa, 2017. urtea.
- **Erref.: 19/18.- EDP COMERCIALIZADORA, SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa, 2017ko laugarren hiruhilekoa.
- **Erref.: 20/18.- Llantenoko Administrazio Batza.-** Basabru bidea konpontzeko obrarako lizentziari buruzko agiri gehiago eskatu zaio.
- **Erref.: 21/18.- Onestea F/2017/16 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.: 22/18. BRA.-** Arespalditza eraikin bat birgaitzeko obrak amaitzeko epea luzatzea, janari-denda baten merkataritza erabilera, bizitegi erabilerara aldatzeko.
- **Erref.: 23/18. APU.-** Llantenoko lursail batean familia bakarreko etxebizitza bat eraikitze obrak abiarazteko udal-lizentzia ematea.
- **Erref.: 24/18. San José y San Buenaventura Fundazioa.-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.: 19/18.- EDP COMERCIALIZADORA, SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa, 2017ko laugarren hiruhilekoa.
- **Erref.: 26/18. MBSO.-** Aparkatzeko txartela berritzea.
- **Erref.: 27/18. OCC.-** Onestea emandako obrarako lizentziari uko egitea.
- **Erref.: 28/18. MACA.-** Retes de Llantenon familia bakarreko etxebizitza bat eraikitze obrak berehala gelditzeko agindua, obraren zuzendaria, eta segurtasuna eta osasuna koordinatuko dituenaren izendapena aurkeztu arte.
- **Erref.: 29/18. AHO.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 30/18. MSC.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 31/18.- Llantenoko Administrazio Batza.-** Horma bat egokitzeko obrarako lizentziari buruzko agiri gehiago eskatu zaizkie.

Iraida andreak (Aiara Batuz) 573/17 Dekretuari buruz esan du agian genero-hizkuntza aintzat hartu behar dela; izan ere, eskuordetzea bi zinegotziren artean egin zen.

* Josu jaunak (Bildu) galdetu du ea nola dagoen Maderas Zerraberen gaia.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du lizentzia eskatu duela edukiera gutxiago duen zerrategi bat jartzeko. Teknikariek informazioa bilduko dute, baina zaila izango da.

* Josu jaunak (Bildu) 582 eta 883 Dekretuengatik galdetu du. Azaldu du azaroaren amaieran obra hori ebaluatzeko agiriak eskatu zirela, eraginkortasunari buruzko zalantzak dituztelako. Oraindik informazio horren zain daude. Ez da erantzunik jaso. Esleipenari buruzko agiriak eskatu dira.

Posta elektroniko bidez bidaliko dira.

6.- Galderak eta eskaerak.

- Iraida andreak (Aiara Batuz) adierazi du Sierrara iristeko obra egin dela, eta Iratxek aipatu zuen Anguloko itxierarekin arazoren bat dagoela, eta obra hori erabiliz, arazo horiek saihesteko konpondu zitekeen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Angulokoek esan zutela mantentze-lanak elkarren artean egiten zirela. Beraiekin bilduko dira gaiari buruz hitz egiteko.

- Josu jaunak (Bildu) galdetu du ea Garabillako kontua nola dagoen, aurrerapenik egon al den.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio bi txostenen menpe dagoela, eta oraindik ez dute Eusko Jaurlaritzaren jaso. Zerbait jakin bezain laster jakinaraziko dugu. Legeztatze proiektua, gehitu du, Zandesak egingo du eta bi txosten falta dira; bat Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarena eta, bestea, beste Sail batena.

Josu jaunak esan du gai hau azkarrago landu behar zela.

- Josu jaunak (Bildu) jasota utzi nahi du Eguneko Zentrora joateko azken deialdian egunean bertan jakinarazi zela whatsapp bidez goizeko 09:30ean. Hortaz, oso denbora gutxi zuten antolatu eta bertaratu ahal izateko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du hala izan zela, baina berriz horrelakorik ez egiten saiatuko direla.

Eta jorrazteko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman zuen bilkura, hemeretziak eta berrogei minutu direla, eta jorratutakoa eta hartutako erabakiak jasota geratzeko, nik, idazkari gisa, fede eman dut, Arespalditzan, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bostean.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.